



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Derio, 2022ko martxoaren 31a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela, 2022ko maiatzaren 17tik 19ra Bilbao Exhibition Centerren (Barakaldo-Bizkaia) egingo den FOOD 4 FUTURE ekitaldian **AZTIk izango duen stand-aren produkzioa, muntaia, desmuntaia, dekorazioa, ekipamendua, martxan jartzea, mantentzea eta aseguruak eraikitze eta/edo horiei lotutako elementuak alokatzeko zerbitzuak azpikontratatzeko.**

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzua kontratua sinatzen den egunetik aurrera hasiko da eta stand-a guztiz desmuntatu ondoren amaituko da.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa **berrogeita bost mila eurokoa da (45.000,00€)**, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa honela egingo da:

- Zenbateko osoaren %25a kontratua sinatzean.
- Zenbateko osoaren %75a zerbitzua amaitzean.

Fakturak jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko dira.





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	50%
Egokitzapen teknikoa	45%
GEK Politikak	5%

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak ivelez@azti.es helbide elektronikoan eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2022ko apirilaren 12ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI

Att. Meritxel González Intxausti

Telf. 34 672 007 111

Mail: meritxel.gonzalez@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantzza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)

- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikiei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaitako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lop@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatze eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. KLAUSULA TEKNIKO ESPEZIFIKOAK

1. Helburuak:

Stand-ak AZTI zentro teknologikoaren arlo zientifikoan bikaintasunaren posizionamendua transmititu beharko du, aurreratua arlo teknologikoan eta aitzindaria bere ekarpenean (soziala eta enpresariala) hiru espezializazio-eremutan:

- **IRAUNKORTASUNA**
- **OSASUNA**
- **TEKNOLOGIA**

Honako hauek lortu beharko dira:

- Eragin handiko transformazio-proiektuak garatzen dituen zentro zientifiko eta teknologikoaren irudia proiektatzea, diseinu berritzaile, erakargarri moderno eta zirrargarria pean, aldi berean, AZTI markaren irudiarekin lerrokatuta.
- Espazio funtzionala eta ondo banatua izatea, AZTIren gaitasunak erakustea ahalbidetuko duena, profesionalen eta bisitarien arteko topaketa alde batera utzi gabe.
- Espazioak jasangarritasuna erakutsi behar du, eta, beraz, ahal den neurrian, jasangarritasun hori erakusten ez duten materialak saihestuko dira.

2. Kokapena:

AZTIren standaren partzela Bilbao Exhibition Centerreko Hall 1ean egongo da, E517 espazioan, eta 80m²-ko azalera izango du. (Plegu honen I. eranskinean erantsi da kokapen-planoa)

3. Hizkuntza:

Testua duten material guztiak 3 hizkuntzatan izango dira: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. AZTIk bere gain hartzen ditu erabilitako testuen itzulpenak

4. Arkitektura:

Espazioa kutxa handi bat bezala dago pentsatuta, kanpotik burdina zulatuzko panelez estalia, burdinazko panelen neurri bereko ilar luzakoe belar- piezekin tartekatua.

Burdinazko paneletarako/belar-moketarako proposatutako neurriak:



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

1000 x 500 mm-ko txapa, 5 mm-ko zuloekin eta zentroen arteko 6,5 mm-ko distantziarekin.

Iradokizuntzat hartu behar da, esleipendunak erabakiko du txapa eta zuloen neurria, txapen atzean egongo den AZTiren logotipoaren argiztapena ikusgai dagoela ziurtatuz.

Txapa horiek RAL 7015, 7024 edo 7043 kolorez margotuko dira, elkarren oso antzekoak, gris ilunak beltzera iritsi gabe.

Pintura-materialek indarrean dagoen araudia beteko dute. Erakunde esleipendunak, egoki baderitzo, stand-ean erabili beharreko kalitate eta kolore laginak sartu ahal izango ditu proposamenean.

Lortu nahi den efektuaren adibidea:



Espazioaren barrualdea zuria izango da, altzariak izan ezik, horiek renderren itxura errespetatu beharko baitute, eta eskatzen duten erakundeek eskatuta emango dira.

Beharrezkotzat jotzen den barruko argiztapena kontuan hartu beharko da, betiere espazioaren estetikan protagonismo garrantzitsurik izan ez dezan. Estetika hori perimetro-hormen goialdean egongo da beti, ondo esekita edo ainguratuta.

Barrualdean, estalki baterako, 4 aulki egongo dira, taburete motakoak. Horrez gain, bi taburete baxu eta hormako lan-gunerako kuxinak (hurrengo renderrean ikus daitekeenez):



Eskatuz gero planoak eta neurriak emango dira

5. Instalazioak:

a) **IRAUNKORTASUNA/TEKNOLOGIA instalazio interaktiboa: ENVIROSCORE**

**Instalazioa eraikitzea, elementu osagarriak ekoiztea eta diseinu-
aplikazioa.**

Elikagaien eta edarien ingurumen-etiketatzeko sistema integratuaren balioa erakusteko instalazio interaktiboa (<https://www.azti.es/envirocore/>). Bertan, gehienez 6 produktu jarriko dira (atrezzo) hauek, azalera errektibo baten gainean jartzean, sistemak aztertuko ditu eta produktua azaltzeko bideo bat aktibatuko du.

Pantaila pitch 4mm-koa izango da gehienez.

Egokien aurkitzen den teknologia (LED edo Video Wall) aukeratu ahal izango da, bideoen, gutxienezko bistaratzea ziurtatuz. Hauek pantailaren bereizmen zehatzean egingo dira.

AZTIren nortasun-eskuliburua errespetatu egingo da instalazioaren diseinuan.

Instalazioaren eta eskatutako moduluen irudia emango da, eskatuz gero.

**b) OSASUNA instalazioa:
STRESS NEURGAILUA**

Altzariak, ukipen-pantaila eta konexio elektrikoak.

Aulki bat eta mahai edo gainalde bat izango dira, eserita dagoen pertsona batek besoak eroso eta erlaxatuta jar ditzan haren gainean. Gainalde horretan, jendeak ikusi ezin duen ordenagailu batera konektatutako ukipen-pantaila bat enkastratuko da. Bertan, bi sentsoreek (AZTIk emandako sentsoreek) emango dituzten datuak bilduko dira, gizabanakoari aplikatu ondoren, eta, gainera, aztertutako pertsonaren datuak jasotzeko inprimaki bat betetzeko aukera emango du.


Instalazio horrek konexio elektrikoak izan behar ditu, bai bi sentsoreetarako, bai sentsoreari lotutako ordenagailu nagusirako, bai ukipen-pantailarako. Sentsoreetako bat hatz-neurgailu batera konektatuta dago, eta hatz-neurgailua bakarrik geratzen da ikusgai. Bestea mahai gainera joango da. Sentsoreari eta aplikatutako teknologiari buruzko informazio zehatza emango da, eskatuz gero.

**c) DISPLAY GARDEN KUTXAK instalazioa
Instalazioa eraikitzea eta diseinua aplikatzea**

AZTIk 5 DISPLAY GARDEN KUTXA ditu, eta renderretan agertzen diren bezala enkastratu beharko dira. Elementu horietarako elektrizitatea aurreikusi beharko da

DISPLAY GARDEN KUTXA erreferentzia bideoa:
<https://www.youtube.com/watch?v=TZmKqHySTwI&t=4s>

Hauetako dira displayen kanpo-neurriak:
Luzea x Handia: 556 x 378 mm
Sakonera: 300 mm





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Display garden horietako bakoitzak bideo bat erakutsiko du kutxaren barruan erakutsitako elementuarekin lotuta.

d) PRODUKTUEN ERAKUS-GUNEA instalazioa

Instalazioa eraikitzea eta diseinu-aplikazioa

Barruko aldeak gehienez ontziratuta izango diren 8 elikagai erakusteko erakus-gunea izan beharko du. Apalak dituen gune bat eraikitzea planteatzen da, bisitariarentzat irisgarria eta ikusgai izango dena.

Stand-eko hormaren batean apalak integratzea proposatzen da, eta erakutsitako produktu bakoitza identifikatuta eta azalduta egon beharko da, testuarekin eta grafikarekin.

Produktu bakoitza biniloz aplikatutako grafikaren bidez identifikatzea proposatzen da.

Erakunde esleipendunaren esku geratzen da produktuak azaldu eta identifikatzeko proposamen alternatibo bat egitea, AZTIk onar dezan.

6. Ikus-entzunezko materiala:

- a) ENVIROSCORE instalaziorako pantaila (Videowall edo LED)
- b) OSASUNA instalatzeko ukipen-pantaila (20 eta 27 bitartean, 16/9 formatua)

7. Markaren errotulazioa:

AZTIren marka, argi eta garbi ikusi beharko da, homogeneousatu eta bat etorri beharko du standaren diseinuarekin, eta leku nabarmen batean agertu beharko du ikuspegi desberdinetatik.

Markaz gain, AZTIren posizionamendua eta ekosistema ezagutarazteko beharrezkoak diren elementu guztiak errotulatuko dira (aliantez atal bat barne). Markaren eskuliburua II. eranskinean dago, eta logoak emango dira eskatuz gero.

8. Altzariak:

Kalitatezkoa izango da, egoera onean egongo da eta standaren ildo orokorrarekin eta jasagarritasunaren eta teknologiaren posizionamenduarekin bat datorren diseinua izango du.

Biltegi bat aurreikusi beharko da, giltzaz ixteko aukerarekin (horretarako stand-aren hormetako bat proposatzen da).

Ekitaldia inauguratu aurreko egunean, esleipendunak gutxienez 4 giltza-kopia eman beharko dizkio AZTIri sarraila bakoitzeko, bat baino gehiago egonez gero.

9. Zorua:

Stand-aren zorua moketa biniliko zuriz egingo da, kolore korporatibo horiko moketa-lerro batekin.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

10. Muntatzeko arauak:

Ikus BEC! erakustokien araudi orokorra plegu honen III. eranskinean.

11. Enpresa esleipendunaren konturako zerbitzuak:

Atal honetan deskribatutako alderdi guztiak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, kontrakoa zehazten ez bada, eta, beraz, eskaintza ekonomikoan sartu beharko dira:

- **Elektrizitatea:** arlo honetan indarrean dagoen araudia beteko du
- Esleipendunaren kontura izango dira garabia eta standaren edozein elementu kargatzeko eta deskargatzeko beharrezkoak diren beste bitarteko osagarri batzuk, bai eta alokatzeko behar diren orduak eta izapideak ere.
- Stand-aren partzela guztiz garbi entregatu beharko da, eta esleipendunaren kontura izango da zaborra eta obra-hondakinak antolatzaileek adierazitako lekuetara garraiatzea.
- **Mantentze-lanak.** Enpresa esleipendunak, ekitaldia egiten den egunetan, harremanetarako pertsona esperientziadun bat jarriko du stand-aren mantentze-lanetarako. Pertsona hori AZTIko solaskidea izango da ekitaldia egiten den bitartean, eta jarritako elementuak konpontzeko eta funtzionatzeko stand-ean sor daitekeen edozein arazo edo premia tekniko konpondu du.
- **Garraioa eta muntatzeko eta desmuntatzeko langileen gastuak.** Enpresa esleipendunak bere gain hartu beharko du eraikuntzako osagai guztiak eta standa osatzen duten elementu guztiak azokara eramateko garraioa. Joan-etorriak, ostatua eta mantenua, etab. ta, oro har, muntaketa eta desmuntaketa gauzatzeko lekualdatu behar diren enpresa esleipenduneko langileen dieta guztiak.
- **Aseguruak.** Esleipendunak behar diren aseguru-polizak sinatu beharko ditu bere kargura, asegurua gauzatzearen ondorioz pertsoneri, gauzei edo erantzukizun zibilarri (fabrikazioa, garraioa, muntaketa, mantentze-lanak eta desmuntaketa) eragindako kalteengatiko edozein arrisku estaltzeko.

12. Iraunkortasuna eta Irisgarritasuna:

Diseinuan, garraioan, eraikuntzan, muntaketan eta desmuntaketan funtsezko alderdiak hartu behar dira kontuan, hala nola:

- a) **Irisgarritasuna.** Stand-ak oztopo arkitektoniko oro ezabatu beharko du, bertara joaten den pertsona orok sarbidea izan dezan.
- b) **Material iraunkorrak.** Ingurumena errespetatzen duten material jasangarriak erabiltzea baloratuko da. Material horiek ekodiseinuko edo ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak izan ditzakete, bai eta material birziklatu eta birziklagarriak erabiltzea ere.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- c) **Hondakinak.** Lehiaketaren xedearekin lotutako jardueren ondorioz sortzen diren hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kudeaketa zuzena (diseinua, garraioa, eraikuntza, muntaketa eta desmuntaketa).
- d) **Produktu toxiko eta arriskutsuak:** ahal den neurrian, produktu toxiko eta arriskutsuak erabiltzea saihestea, eta ingurumenean eragin txikiagoa duten beste batzuekin ordezkatzea.
- e) **Energia:** ahal den neurrian, energetikoki eraginkorrak diren ekipo informatikoak, ikus-entzunezko baliabideak eta argiztapenak erabiltzea
- f) **Isuriak:** energia-kontsumo txikiko ibilgailuak erabiltzea, ahal den neurrian, horri lotutako CO2 isurketak gutxitzeko.
- g) **Material birziklatu eta birziklagarriak** erabiltzea eta diseinuan jasangarritasuna eta irisgarritasuna bezalako balioak transmititzea baloratuko da.

13. Proiektuaren koordinazioa eta zuzendaritza:

Enpresa esleipendunak esperientzia duen pertsona bat eskainiko du proiektu honetarako, proiektuaren koordinazio globalerako. Pertsona hori arduratuko da enpresa esleipendunaren kontura diren plegu honetan jasotako alderdi guzti-guztiak ezartzeaz eta horien jarraipena egiteaz, kontratua behar bezala gauzatzeko. Pertsona hori harremanetan jarriko da AZTIko taldearekin.

AZTIri dagokio proiektuaren garapenaren jarraipena etengabe eta zuzenean egitea. Horretarako, erakunde esleipendunak jarraipena erraztuko dio AZTIko taldeari. Jarraipen-bileren egutegia zehaztuko da.

AZTIk erakunde esleipendunari lagunduko dio, proiektua garatzeko beharrezkoa den informazioa emanaz, eta besteren informazio-iturrietarako sarbidea lortzen lagunduko du.

Esleitutako proposamenean edozein aldaketa eginez gero, AZTIren akordioa beharko da, eta honek lanen gidalerroetan aldaketak egon daitezkeela adieraz dezake une oro.

14. Konfidentzialtasuna eta jabetza

Informazio oro konfidentziala izango da, eta ezingo da argitaratu, ezta osorik eta zati batean, edo beste edozein modutan AZTIk berariaz eta idatziz baimendu gabe.

Erakunde esleipendunak ezin izango du inoiz proiektuari buruzko adierazpen publikorik egin AZTIren berariazko eta alde zuzeneko baimenik gabe.

15. Gauzatzeko epea

Kontratua gauzatzeko epea administrazio-klausula zehatzen agirian aurreikusitakoaren arabera ezarriko da.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Aurrekoa gorabehera, stand-a guztiz bukatuta, garbi eta guztiz martxan egon beharko da ekitaldia hasi aurreko eguneko 20:00etan, hau da, 2022ko maiatzaren 16an.